



LEITZAKO FRONTOIA PILOTAREN IBILBIDEAN

Nafarroako Gobernuak eta Pilota Federazioak abiarazi dute ekimena; orotara 39 herritan jarri dituzte afixak. 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-10-27

VIII. URTEA 2.110. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Herriko gozogintza tradizionala ezagutzeko parada, larunbatean

TOLOSA Tolosa Goxua azoka izango da Trianguloa plazan goizean zehar; 2015 txurro ere banatuko dituzte

ABESBATZAK Azokarekin batera Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa ere izango da asteburuan 2



Tolosako Ezeiza, Sorarrain, Ibañez, Soroa eta Gorrotategi gozogileak izan ziren atzo aurkezpenean, Nerea Letamendia Azoketako zinegotziarekin batera. A. IMAZ

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia gurean

TOLOSA Zortzi edizio Donostian ospatu ostean bederatzigarrena Leidor antzokian izango da datorren azaroaren 5ean 3

Gaur hasiko dute Kultur Hamabostaldia drogen inguruko hitzaldi batekin

OREXA Azaroaren 5a arte ekitaldi ugari izango dira, tartean, igandean egingo dute Uitzí-Orexa ibilbidea 7

lorekolore
LUR ZERBITZUAK

LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN **GUZTIA**

SANTU GUZTIEN EGUNERAKO ZENTROAK ENKARGUZ
(Larriberriak zain izateko, adarrek ezak)

MEGU GARAIKO LORAK SALGAJ

Altuna poligonoa. 4-G. OLABERRIA | 943 88 30 53

Tolosa Goxua Bizkotxo Lehiaketa eta guzti etorriko da larunbatean

Tolosa » Bertako gozogleekin batera, Euskal Herritik eta kanpotik etorritakoek jarriko dituzte euren postuak Trianguloan.

ASIERIMAZ

Urriko azken larunbatean, hilaren 30ean, Trianguloa plazan Tolosa Goxua ospatuko dute. Bertan, gozogintzan dabilen herriko bost etxekeuren produktua jarriko dituzte. Ekimena Udalaren laguntzarekin antolatu dute.

Nerea Letamendia zinegotziak eta Tolosako bost gozogleik atzo aurkeztu zuten larunbaterako prestatu dutena.

Azoka berezia Trianguloan

Alde batetik Tolosako gozogintza tradizionala ezagutzeko aukera egongo da larunbatean, 08:30etik aurrera; bestalde ordea, berrikuntzek ere bere lekua edukiko dute.

Tolosako Gorrotxategi, Ezeiza, Gorostidi, Gozona eta Saizarrekin batera, Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkaitik, Ipar Euskal Herritik eta



Ezeiza, Sorarrain, Ibañez, Soroa eta Gorrotxategi gozogleak, Letamendia zinegotzia erdian dutela. A. IMAZ

Errioxatik etorritako gozogleak ere Tolosa Goxuan elkartuko dira. Hautetaz gain, Allariz (Ourense) herriko gozogintzako ordezkariak ere etorriko dira. Allariz ospetsua da Almendratua izeneko gozoa-

rengatik; almendra ehoa edo bir-

rrindua, azukrea eta arrautza zur- ringoa dira bere osagaiak.

Trianguloan egongo diren postuen artean, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak jarriko duen karpa azpimarratu behar da. 10:00etan zabalduko dute eta txo-

kolate beroa eta pastak jarriko dituzte salgai bertan.

2015 txurro

Tolosa Goxuaren aitzakian, Tolosako txurriak gosaltzera joaten direnen artean 2015 txurro bana-

tuko ditu larunbatean. Zerbaki horrek Tolosa 2015 proiektuarekin zerikusia duela azaldu zuen Nerea Letamendia Udal ordezkariak: «Proiektu horren helburua Udalaren, herriko elkarten eta tolosarren artean etorkizuneko plan bat adostea da, herri eramangarriagoa lortze aldera».

Bizkotxo Lehiaketa herrikoia

Larunbathonetan herritarrek parte hartzeko aukera ere edukiko dute, Trianguloa plazan Bizkotxo Lehiaketa egingo baita. Horretarako egokituko duten karpan, 10:00etatik 11:00etara bitartean, herritarrek euren bizkotxoak utzi beharko dituzte. Nola egin duten ere azaldu beharko dute, errezeta bizkotxoaren ondoan utziaz.

11:00etatik aurrera epaimahaia osatuko duten adituen txanda izango da: Elena Arzak, Lourdes Rekondo, Jose Mari Gorrotxategi eta Allarizko ordezkari bat arduratuko dira lan horretan.

Sari banaketa ekitaldia 12:30ean egingo da eta irabazleek Tolosako gozotegietan gastatzeko 200 euroko saria jasoko dute. Bigarren gertzen direnek 150 euro jasoko dituzte, xede berarekin gastatzeko.

Lehiaketan parte hartzeko izena aurrez ematea gomendatzen da, 943 69 75 21 zenbakira deituta edo feriak@tolosakoudala.net helbidera idatzita.

Tolosa Goxuak-ek bat egingo du Abesbatza Lehiaketarekin

Gizartea » Asteburuan ospatuko den Lehiaketaren harira, gozogleek errusiar pastel erraldoia egingo dute Trianguloan.

Aurtengoan Tolosa Goxuak-ek eta Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketaren 42. edizioak topo egingo dute Tolosan, hilaren 30ean.

Gozogleek hori kontuan izan dute eta errusiar pastel erraldoi bat egiteko asmoa iragarri zuten atzoko aurkezpen ekitaldian: «errusiar abesbatzen omenez bertako pastel erraldoi bat egingo dugu; eta pastel goxo hau bertaratutakoaren artean banatzeko garaian, errusiar abesbatza ere bertan egongo da kantari.



Abesbatza Lehiaketa eta Tolosa Goxua elkartuko dira larunbatean. A. IMAZ

Trianguloa plazan, 12:30ean hasiko gara banaketarekin».

Letamendiaren esanetan, erru-

siarrak euren jantzi bereziekin gerturatuko dira Trianguloa plazara.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aurreakordio batera iritsi dira metalgintzan

ERREDAKZIOA

ELA eta LAB sindikatuek eta Adeggi Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak metal arloko itunaren aurreakordioa lortu zuten atzo, bi urtekoa, azken bederatzi hilabete hauetan ezin konpondurik ibili ondoren.

Bihar sinatuko dute lan hitzarmena eta akordioaren arabera, aurten eta hurrengo urtean KPI-igoera izango dute langileek, eta

gaur eguneko lanaldiarekin jarraituko dute, handitu gabe.

ELA eta LAB sindikatuek adierazi dutenaren arabera, orain arteko itunaren ez da inolako murrizketarik izan.

Adegiren ustez, «ikaragarriko garrantzia» du aurreakordioak, «enpresek merkatuen dinamikara egokitu ahal izango dutelako». Eskualdean langile ugari ari dira metalean beharrean.

AHTren aurkako ekintza ikusgarria egin dute

ERREDAKZIOA

Igandean Euskal Herrian zehar 18 erreka berdez koloreztatuta agertu ziren. Ikusmin handia piztu zuen ekintza AHT Gelditu! Elkarlanak aldarrikatu zuen, «Abiadura Handiko Trenaren proiektuak akuifero eta erreketan eragiten dituen kalteak salatuzko».

«Ura ezinbestekoa dugu bizitzarako. Kultura eta hizkuntzan barneratua dago garrantzi hau, horrela toki askok uraren inguruko

ezaugarrietatik hartzen dute izena eta ibai guztiei eman diegu izena, baita erreka adarre; eta beraiek bailara eta eskualde osoari askotan. Baina azkenaldian atzera egin dugu horretan eta pentsamolde berriari lotuta AHT bezalako azpiegitura erasokorrak aurrea hartu diete errekei» azaldu dute Elkarlanetik.

Tolosako Oria ibaia ere berde kolorez jantzi zuten iragan igandean.

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia Leidorren

Kultura » Azaroaren 5ean izango da 22:00etatik aurrera; leku desberdinetako sei talde ariko dira taula gainean.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek antolatuta, bederatzigarren aldiz egingo dute aurtengoan Nazioarteko Trikitixa Jaialdia.

Urteroko formatuari eutsiko dion arren, aldaketa nabarmen batekin dator aurtengoa; Donostiatik Tolosarako saltoarekin. Izan ere, Kursaal Jauregian aurrena eta Victoria Eugenia Antzokian ondoren, Donostian ospatu izan dira orain arteko zortzi jaialdiak.

Soinu txikia munduko hamaika txokotan jotzen da eta jotzeko molde horiek erakusteko asmoarekin antolatzen dute urtero Nazioarteko Jaialdia.

Hala, trikitilari euskaldunekin batera, atzerriko soinu-jotzaileak

ere ariko dira taula gainean, urteroko moduan.

Guztira 6 talde izango dira Leidorren azaroaren 5ean. Horietako hiru Euskal Herrikoak izango dira, eta beste hiruak, aldiz, Italia, Britainia eta Kataluniakoak.

Euskal Herriko talde bat eta bi bikote

Hiru euskal ordezkariz izango dira jaialdian: Kupela; Xabi Aburruzaga eta Jose Urrejola; eta Mirari Azkune eta Aitziber Otegi.

Kupelak bere azken lana, *Arriskua Maite*, eskainiko du. Xabi Aburruzagak eta Jose Urrejolak, aldiz, *Denboraren Naufragoa* laneako abestiak joko dituzte eta Mirari Azkune eta Aitziber Otegiaren emanaldian, berriz, kanta tradizionalak izango dira nagusi.

Hauekin batera Kataluniako Blai Casals eta Manu Sabate izango dira Leidor antzokian. Italiatik aldiz, Filipo Gambettak kutsu tradizionala duen autore musika jotzen du soinu txikiarekin. Italia-



Orain bi urte Igorreko Arantzarte taldeak jo zuen. JON LOPEZ-IRUTXULOKO HITZA

rrak, hala ere, Claudio de Angeli-
ren gitarra akustikoaren laguntza
ere izango du.

Bukatzeko Britainiatik Imosi-
ma izango da Leidorren. Talde ho-

nek Irlandako eta Quebec-eko
musika ere egiten duen arren, jaial-
di honetarako, Britainiako dant-
zarako musika tradizionala eta
sorkuntza berriak uztartuko ditu.

» PARTE-HARTZAILEAK

Italia

■ **Filippo Gambetta eta Claudio De Angeli.** Claudio de Angeliarekin batera, Filippo Gambettak kutsu tradizionalako autore musikako emanaldia eskainiko du soinu diatoniko eta gitarra akustikoaren bidez. Konposizioak hein handi batean Filipporenak dira, estilo ezberdinetakoak eta gutxitik libreak; hala ere, noizbehinka ezagunak diren doinuak ere entzungo dira. Bereizitasun hau duten emanaldiak eskainiz mundu osotik ibilia da Genovako bikote hau. Biak ala biak musikari aktiboak, Filippo Gambettaren taldean eta Liguriani eta Cairelon musika taldeetan aritzen dira elkarrekin (Liguria eta Irlandako musika tradizionala jorratzen duten taldeak azken bi hauek). Hala ere, norbera bere aldetik, beste hainbeste ekimenetan ere ibiltzen dira. Filippo Gambettak bere izenpean hiru disko argitaratu ditu (*Stria*, *Pria Goaea* eta *Andirivieni*), eta Claudiok bakarra, ... *lassi nell Oregon* izenburupean.

Britainia

■ **Imosima.** Britainiako, Irlandako eta Quebec-eko musika egiten du talde bretoi honek, baina jaialdi honetan Britainiako dantza eta festarako musika eskainiko dute. Horrela, musika tradizionala eta sorkuntza berriagoak uztartuko dituzte Audrey Le Jossec akordeoi diatoniko jotzailearen gustu eta ikuitu bereziarekin.

Katalunia

■ **Blai Casals eta Manu Sabate.** Blai Casals eta Manu Sabate musikari gazteek Kataluniako musika tradizionalarekiko zaletasuna gordezten dute. 2003an elkar ezagu-

tu zutenetik biak daude folk munduan murgildurik. Blai Casalsek akordeoi diatonikoa eta trikitixa jotzen ditu eta Cati Plana, Joseba Tapia edo Perea Jimenez izan ditu irakasle. Bartzelonako Taller de Musics eskolan zabaldu zituen bere musika ikasketak. Manu Sabate berriz, klarinete eta gralla jotzailea da eta gaur egun Esmuc eskolan grallako ikasketak egiten dihardu.

Euskal Herria

■ **Kupela.** Kupela taldea Urola baidarako Zabale (trikitixa), Larrañaga (panderoa, ahotsa) eta Berastegi (perkusioa) hirukoteak osatzen dute. Erromeria giroan urte luzeetako esperientzia biltzen duen taldea da eta festarako eta dantzarako musika alaiak egiten dute. 2010ean kaleratutako *Arriskua Maite* azken lana aurkeztu du Kupelak.

■ **Mirari Azkune eta Aitziber Otegi.** Mirari Azkune 7 urterekin hasi zen trikitixa ikasten Iñaki Zabaletarekin. Euskal Herri mailan, gazteen trikitixa txapelketetan ere jardun zuen 18 urte bete zituen arte, bi txapel lortuaz. Aitziber Otegi 5 urterekin hasi zen panderoa ikasten Tapiarekin, ahizpak soinuak jotzen zuen eta berarekin aritu izan da erromerietan. Xabier Aranburu eta Ane Larreategi izan zituen bitartekide gazteen mailako txapelketetan (8 txapel ditu eskuratuta). Azken urteetan Lutxurdiorekin dabil erromerietan. Bikote moduan Euskal Kantu Txapelketan parte hartu zuten orain bi urte, musika laguntza eta *a capella* modalitateetan abestuz. Interpretazio onenaren saria irabazi zuten musika laguntza modalitatean. Aurten, San

Josetako jaialdian hartu dute parte, Mirariren lehengusuekin batera. Gaurko emanaldian kantu tradizionalak eskainiko dituzte.

■ **Xabi Aburruzaga eta Jose Urrejola.** Xabi Aburruzagaren trikitixa betidanik egon da folk musikan murgildua. Horren emaitza 2007an *Bizkaiko Trikitixa* eta 2009an *Denboraren Naufragoa* izenburupean argitaratutako diskak dira. Bigarren lan honetan, Jose Urrejolaren flauta, whistle eta ewi-a ere lagun izan zituen, eta or-

duk hona Xabi Aburruzagaren taldean aritzen dira elkarrekin. Jose ere folk eta jazz talde ugarietan aritu da musikari gisa eta antzerki, filme zein dantzarako musika ere egin du. Urtean zehar banda osoarekin herri zein folk jaialdi ezberdinetan hainbat kontzertu eskaini ondoren, bikote formatoreuren musika moldatuz ere emanaldiak egin dituzte. Nazioarteko Trikitixa Jaialdi honetan *Denboraren Naufragoa* diskoko piezak eskainiko dizkigute.

MUNDUKO SUKALDARITZA
EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BRITAINIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA urriaren 29a baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Izar Arregi psikologoak hitzaldiak eskainiko ditu Orixen

Hezkuntza » Hiru hitzaldi eskainiko ditu; azaroaren 2an, 9an eta 16an 18:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Tolosan dagoen Orixen Institutuak jakinarazi duenez Izar Arregi psikologo kliniko azpeitiarrak hiru hitzaldi eskainiko ditu azaroan zehar Orixen Institutuan bertan, 18:30etik aurrera.

Hitzaldiak euskaraz izango dira

Hitzaldiak DBH 1, 2 eta 3 mailako gurasoei zuzendutakoak dira eta euskaraz izango dira.

Horiek horrela, azaroaren 2an izango da lehen hitzaldia eta nerabezaroaren inguruko izango dela aurreratu du psikologoak.

Azaroaren 9an aldiz, droga menpekotasuna saihestu ahal izateko zenbait argibide emango ditu Arregik.

Bukatzeko azaroaren 16an gazteak eta diziplinaren inguruan hitz egingo du.

Informazio gehiago eskuratzeko 943 65 24 94 telefono zenbakira deitu daiteke.

2011 agenda
Dagoeneko salgai!

12€

Liburu dendetan
www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Pilotaren Ibilbidea izeneko ekimena jarri dute abian, Nafarroan

Leitza » Pilota Federazioak eta Gobernuak egin dute, Nafarroan pilotak izan duen historia ezagutarazteko.

ERREDAKZIOA

Hori du denborak, dena aldatzen duela. Baita kirola ere; pilota, adibidez. Azken albisteetan arabera, garai bateko jainkoek indarra galdu, eta berriak agertu dira lehengoan lekua hartzerantz. Angelusa errezatze-ko eteten ziren garai batean partidak; apustuak berdindu ahal izateko, gero; eta telebistako iragarki arteak sartu ahal izateko, berriz, orain. Kirolak kirol da oraindik, noski, baina bada besterik ere. Pilotaren historiari begira jarri dira orain Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Pilota Federazioak: Pilotaren Ibilbidea sortu dute horretarako. Hainbat afixa jarri dituzte Nafarroako 39 herritan, horietako bat Leitza herria da. Kirolaren historia, pilotari garrantzitsuenak eta joko motak aipatzen dituzte. Hori da helburua: pilotari buelta ematea, eta turismorako amu ere izan ote daitekeen ikustea.

Bada zer kontatua, luzea baita pilotaren historia Nafarroan. Lehenagotik ere jokatu zuten, baina 1331koa da pilotaren inguruko lehen aipamen idatzia. Zangozan ematen du, ordea, Pilotaren Ibilbideak lehen botea. Hangoa da, izan ere, Nafarroan pilota partida bati buruz dauden lehen testuetako bat: 1562koa. Dirudenez, herrita-



Leitzaiko plazan dagoen ko frontoian pilotariak partida jokatzen. ASIER IMAZ

rrek kontzejuko saioari boikota egiteko antolatu zituzten pilota partidak, eta alkateak joan behar izan zuen pilotariei pilota hartu, eta partida etetera. Preso hartu zituzten jokalarietako batzuk.

Baina boterea zutenak ere aritu izan dira pilotan; nobleziaren kirola ere izan da. Jakina da, XIV. mendean, adibidez, Nafarroako Luis I.a erregea pilotazalea zela. Eta Erriberriko gazteluan ere bazen pilotaleku bat, XV. mendeko dokumentuetan ageri denez.

Dena ez da koroa, eta sotanapean ere ibili da pilota, maiz. Izan da jainkozalea eta pilotazalea izan den erlijio gizonik Nafarroan, eta XVI. mendekoak dira dauden gisa horretako lehen adibideak. Fiteoron, dirudenez, monasterioan ari-

tzen ziren fraideak pilotan, baita handik kanpo ere. Garai hartan fraideengatik jasotako kekek direla-eta jakin daiteke hori.

Herri xehea ere izan da pilotazalea, noski, XVIII. mendetik aurrera, batez ere. Hainbestearino, ezen Iruñean 1743an debekatu egin zuten kalean pilotan aritzea. Erregearen laguntzailere batek pilotakada bat jaso omen zuen kalean zebilela, nonbait, eta debeku bilakatu zen haren kexa. Debeku nahia esan behar, ordea, agintariak ezin izan baituzten eten jendearen pilotagosea. Azkenean, 1745ean mugatu egin behar izan zuten debekua: jai santuak ziren bitartean bakarrik debekatu zuten pilotan aritzea.

XIX. mendean hasi zen egun ezagutzen dugun kirolaren itxura

hartzen. Orduan hasi zen, hasi ere, pilota pilotalekuan jokatzen; hormaren aurka. Orduan arte plaza libreetan, kalean eta ahal zen lekuetan aritzen ziren pilotariak. Eta frontoiak hedatzearekin hedatu ziren egun ezagutzen ditugun jokoa. Hala, Nafarroa osoan garrantzi berezia izan duten pilotalekuak ere hartzen ditu kontuan Pilotaren Ibilbideak.

Frontoien garaian, denbora batez, frontoien aurreko garaitik zehorren ohitura bati heldu zioten pilotazaleek Nafarroan: kontatzeko modu zaharrari, hain zuzen ere. Tantoka beharrean, jokoa erabakitzen zuten zeinek irabazi zuen. Egun tenisean egiten den moduan, gutxi gorabehera. Bi tantoz irabazi behar zuten pilotariak jokoa, gu-

txienez. Nafarren eta gipuzkoarren arteko partidak puntuka kontatzea onartzen zuten, halere.

Gero, hedatzen joan zen tantoka kontatzeko ohitura. Eta ez da harrizkoa, 1904an, jokoa kontatuta, Nafarroako lau pilotari hiru orduz jokatzeko aritu baitziren, azkenean argirik gabe gelditu eta partida bertan behera utzi behar izana. 1929an ezarri zuten, legez, partidak tantoka jokatu beharra.

Magoa lehoiaren aurka

Frontoiekin batera heldu ziren esku-huska, pala, zesta-punta eta erremontea Nafarroara. Zaletasun handia izan zen joko horientzat, eta bertakoak izan ziren kirol horren izen handietariko bi: Arroizko Jesus Abrego «erremontearen magoa» eta Berako Joshe Irigoien «Nafarroako lehoia». 20ko hamarkadatik aurrera izan ziren bi pilotari handi horien arteko buruz burukoak. Lehoiaren indarra, magoaren frontoia hartzeko moduaren eta trebetasunaren aurka.

Ez dira horiek bakarrak. Asko dira herrialde horri lotutako pilotari garrantzitsuen izenak, eta haien jaioterrietan egiten du geldialdia Nafarroako Gobernuak eta Pilotarien Federazioak prestatuturiko Pilotaren Ibilbideak. Julian Lajos eskuako jokalaria gogorarazten du Larraintzarren jarrirako afiak. Juan Ignacio Retegi I.a eta Julian Retegi II.a dakartzat gogora Eratsunen dagoenak, Olaizola anaiak Goizuetakoak, Juan Martinez de Irujo Iberon dagoenak... Eta Leitza pilotari izanik eta direnak ere ez dira gutxi.

Iraganeko izenak eta gaur egungoak, Angelusaren edo iragarkien etenak gora behera, pilotaren historiak Nafarroan eten sakonik izan ez duen seinale.



Kuko, Truko eta Bolenwaider

ASTEASU » Kultur Jardunaldien baitan, atzo Asteasun, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak izan ziren. Bertako haurrek arratsalde ederra pasa zuten pailazoaren emanaldia ikusiz. Gaur 19:30ean, Mikel Laboa-

ren inguruko dokumentala ikusteko aukera izango da udaletxeko zine aretoan. Eta ostiralean zine aretoan bertan, *Ate Joka* antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute 21:30etik aurrera. a. e. MAIZ



Gary Graden-en babesean

TOLOSA » Gary Graden zuzendariak Gospel ikastaro laburra eskaini zuen asteburuan Tolosan. 100 lagunek lan egin zuten Gradenekin bi egun horietan, baina jende asko ikastaroan lekurik gabe gelditu zela ere ai-

patu behar da. Egun t'erdian ikasia, Musika Eskolan erakutsi zuten igande eguerdian. Herritar ugariaren irrean ikasitako abestiak kantatu zituzten Gari Graden zuzendaritzapean. SARA GOMEZ

Xabi Alonso, Urrezko Baloia irabazteko hautagaietako bat da

Tolosa » FIFAk 23 jokalaririk aukeratu ditu horretarako, eta urtarrilaren 10ean jakinaraziko du nor den irabazlea

emango du irabazlearen izena, Zuzen. Alonsok sekula ez du nazioarteko banakako saririk irabazi. Taldeka bai: Liverpoollekin Txapelketa Liga bat (2005) eta Espainiako selekzioarekin Eurokopa (2008) eta Munduko Txapelketa (2010).

Hautagaiak

Xabi Alonso (Euskal Herria), Dani Alves (Brasil), Iker Casillas (Espainia), Cristiano Ronaldo (Portugal), Didier Drogba (Boli Kosta), Samuel Eto'o (Kamerun), Cesc Fa-

bregas (Herrialde Katalanak), Diego Forlan (Uruguai), Asamoah Gyan (Ghana), Andres Iniesta (Espainia), Julio Cesar (Brasil), Miroslav Klose (Alemania), Philipp Lahm (Alemania), Maicon (Brasil), Leo Messi (Argentina), Thomas Muller (Alemania), Mesut Ozil (Alemania), Carles Puyol (Herrialde Katalanak), Arjen Robben (Herbehereak), Bastian Schweinsteiger (Alemania), Wesley Sneijder (Herbehereak), David Villa (Espainia) eta Xabi (Herrialde Katalanak) dira gainontzeko hautagaiak.

Asvineneak bi ikastaro trinko antolatu ditu

Aduna » Collage ikastaroa hilaren 30ean, larunbatean, egingo dute eta Didgeridooaren ingurukoa azaroaren 27an.

Izena emateko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek 40.

Ordutegiari dagokionez, hilaren 30ean, 10:30ean hasiko da ikastaroa, 13:30ean amaitzeko.

ERREDAKZIOA

Collage eta didgeridoo ikastaro trinkoak antolatu ditu Asvineneak urriaren 30ean eta azaroaren 27an. Izena emateko 665 73 80 81 telefono zenbakira deitu edo asvineneacursos2010@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.

Collage ikastaroa

Izaskun Zarate bilbotarra izango da ikastaroko irakaslea. Eskulanak gustuko dituztenentzat egokia da collage ikastaroa Asvineneatik azaldu dutenez: apainketak, dekorazioak, atrezzoak... egiten ikaste-ko adibidez.


Didgeridoo ikastaroa

Antipodetako aborigenen instrumentua ezagutzeko eta jotzen ikastea aukera bikaina izango dute Asvinenean ikastaroa egiten dutenek azaroaren 27an.

Bazkideek izena emateko 25 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek 35.

Didgeridoo ikastaroa hiru ordukoa izango da eta 11:00etan hasiko da.

Asvineneatik herritar guztiak gonbidatu dituzte bi ikastaro trinko hauetara. Jakintza zabaltzeko aukera bikaina dela azpimarratu nahi izan dute Adunako Arte eszenikoaren laborategitik.



Didgeridoo ikastarokoa eskainiko dute Asvinenean. HITZA



Harpidedun izateak badu saria

harpidedunen
TXOKOA hitza

①

SASKIBALOIA

Urriaren 31an Illunben jokatu den **Lagun Aro GBC - Blancos de Rueda Valladolid** partidarako **sarrera pare bat**



②

DISKOAK

Gaztelupeko Hotsak disketearen eskutik, Urko Menairen **"Ametsak eta Oroitzapenak"** eta Bide Ertzean taldearen **"Don inorrez"** disken **bina ale**



③

JAIALDIA

Azaroaren 5an ostirala iluntzeko 20:30ean **Tolosako Leidorren** ospatuko den **IX. Nazioarteko Tikitixa Jaialdirako bi sarrera pare**



④

ANTZERKIA

Datorren **azaroaren 6an** larunbata arratsaldeko 17:00etatik aurrera **Tolosako Topic-en** eskainiko den **Robot Maitea** antzezlanerako **bi sarrera pare**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info**
[harpidedunen kidea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



Herriko Ostataua udaletxearen azpian dago. NEREA URIBIZU

Herri Ostatuaren ustiaketa lehiaketara atera du Udalak datozen lau urteetarako

Albiztur » Baldintza berri batzuk jarri ditu pleguan, tartean ezinbestekoa dela jende aurrean izango den langileak euskaraz jakitea.

ERREDAKZIOA

Albizturko Udalak Herriko Ostatuaren ustiaketa lehiaketara atera du. Zenbait aldaketa izango dira egun ematen den zerbitzuarekin alderatuta. Hala, orain arte zerbitzua bost urtetarako kontratatzen bazen, oraingoan lau urtetarako izango da. Baldintza berri batek euskararekin du lotura. Izan ere,

jende aurrean lan egin behar duen pertsonak ezinbestekoa izango du euskaraz jakitea.

Beste aldaketa nabarmen bat, Ostatuaren baitan gune bat egokitu behar dela izango da, bertako produktuak eta oinarritzko gaiak saldu ahal izateko. Udaletik azaldu dutenez, «ez dago denda bat herrian. Soilik denda bat jartzeak ez du agian bideragarritasun bat izango. Horregatik egokia iruditzen zaigu jatetxearekin eta tabernarekin lotuta, bertako produktu batzuk, esaterako babarrunak, eta oinarritzko produktuak, salgai izatea».

Zerbitzua ematen dutenek har-

tu ditzaketen oporren inguruan zehaztapen gehiago jarri ditu Udalak plegu berrietan. Horrela, 20 egun hartu ahal izango ditu kontratatzaile berriak, lehen 15 egun zirenean. Hori bai, ezingo du Ostataua itxita izan 15 egun jarraian baino gehiago eta opor egunak Gabonetan, Aste Santuan edo herriko jaietan ezingo dira hartu.

Bestalde, astean egun bat itxita izateko aukera izango du atsedent hartzeko, baina egun hori ezingo da izan ostiral, larunbat, igande, hileta, herri ospakizun edo mota honetakoak gertatzen direnean. Atsedent eguna bitan zatitu daiteke. Horrela egiten bada, berritasun-

» NEGOZIAZIO IRIZPIDEAK

- **Kanona.** Hileko kanona igotzen den 50 euro bakoitzeko puntu bat emango zaio, gehienez hamarrenaraino iritsiz.
- **Ordutegia eta oporraldia.** Ordutegia hobetzea, ordu bakoitzeko puntu bat. Taberna urte guztian irekita edukitzea bost puntu.
- **Zerbitzuaren hobekuntza.** Zerbitzua hobetzeko proposatzen diren hobekuntzak eta herriko ekin-tzen antolaketan proposatzen dena, gehienez bost puntu.
- **Ostalaritzan eskarmentua.** Sukaldari gisa, urteko puntu bat eta gehienez 5 urte, 5 puntu. Bestelakoan, urteko puntu 1 eta gehienez 5 puntu. Sukaldari titulazioa, puntu bat.

20 eguneko epea

Baldintza pleguak atzo argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lehiaketan parte hartzeko interesa dutenek 20 egun ditu atzotik hasita horretarako. Albizturko Udaleko erregistroan aurkeztu daitezke beharrezko dokumentuak edo posta bidez bidali.

Kontratuaren kanonari dagokionez, taberna eta jatetxearen ustiaketa-erregatit hileroko gutxienez 500 euro eta dagokion BEZa ordaindu behar da. Kanon hori hiru hileroko, epe horren amaieran, ordaindu behar da udal diruzaintzan. Kanona urtero errebisatuko da, urtarilaren leian, dagokien erakunde ofizialak argitaratzen duten EAEko KPIaren arabera.

Lehiaketara aurkezten direnek kanon hori hobetu dezakete eta datu hori izango da kontuan hartuko denetakoa bat esleipena egiterakoan. Ordutegiaren eta oporraldien proposamena eta egutegia ere kontuan hartuko da, baita proposatzen diren hobekuntzak eta herrirako ekintzen antolaketak ere. Ostalaritzan izandako esperientzia ere kontuan hartuko da.

Urdaibaira bidaia antolatu du Udalak azaroaren 6rako

Albiztur » Bizkaiaiko zonalde horretako inguruak eta txakolindegia bat bisitatuko dituzte bidaiaira joaten direnek.

ERREDAKZIOA

Albizturko Udalak bidaia antolatu du Urdaibaira (Bizkaia). Azaroaren 6an, larunbata, da irteeraren eguna. Urdaibaiko inguruak eta txakolindegia bat bisitatuko dituzte.

Hain justu, lehenengo Gernikako Itsas Mendi txakolindegia bisitatuko dute bidaiariak. Bertako txakolina dastatzeko aukera izango dute. Horren ondoren, Kortezubiko Marko jatetxean bazkalduko dute eta arratsalde partean Urdaibaiko inguruak ezagutzeko aukera izango dute: Santimamiñe koba ingurua, Laga eta Laida hondartzak...

Prezioa, 20 euro

Izena eman nahi duenak azaroaren 2a baino lehen egin behar dute. Horretarako ohiko lekuetara jo behar da. Bidaia-erprezioa 20 eurokoa izango da izena ematen duten guztiarentzat.

Albizturren erroldatutako pertsona orok eman dezake izena. Autobusak dituen plazak baino jende gehiagok izena emango balu, lehentasuna 60 urtetik gorakoek izango lukete.

Herritik kanpo bizi direnek aukera izango dute bidaian izena emateko, betiere autobusean tokia balego eta herrian erroldatuta daudenek lehentasuna dutela kontuan hartuta, Udaletik azaldu dutenez.

Irteera Albizturko enparantzatik izango da, 08:30ean. Bidaian zehar geldiune bat egingo dago saldu ahal izateko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HILBARIEN BAIKOA
Esna Inperala

FUNERARIA VASCONGADA
902 402 900

Zine Foruma gaur izango da, eta bertan, 'Spice' lana eskainiko dute

ERREDAKZIOA

42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa dela eta, Zine Foruma gaur izango da. *Spice* filma jatorrizko bertsoan ikusi ahal izango da Leidor antzokian, 19:15etako eta 21:45eko saioan.

Vincenzo Natali da lanaren zuzendaria, eta aurrean estreinatu da. Adrien Brody, Sarah Polley, David Hewlett, Delphine Chaneac dira, besteak beste, protagonistak. Argumentuak honela dio: Clive (Adrien Brody) eta Elsa (Sarah Polley) DNA-ren konbinazioan espezializatutako bi zientzialari oso azkar dira. Hauek farmazia laborategi baterako animalia espezieen hibridoak diseinatu aritzen dira. Beraien azken esperimentuaren arrakastaren ostean, ezkutuan, beste pauso bat ematea erabakitzen dute, eta gizakiaren DNA erabili medikuntza modernoa itzultzen lagunduko dien hibrido bat sortzeko.

Behin Abesbatza Lehiaketa amaituta, zine emanaldi gehiago izango dira. Hala, azaroaren leian eta 2an Pablo Traperoaren *Carancholana* emango dute.

Alurr dantza taldearen argazki erakusketa bertan behera geratu da

ERREDAKZIOA

Kultur jardueren artean, Alurr dantza taldearen inguruko argazki erakusketa programatua baldin bazegoen ere, hau, bertan behera geratu da. Txixi Orbegozok dantza taldearen emanaldietan ateratako argazkiekin bilduma bat osatu dute, eta hasiera batean, jendarean ikusgai jarri behar zituzten, baina azkenean, arrazoi ezberdinak medio, ez egitea erabaki dute.

Hitzaldi batek irekiko du gaur Kultur Hamabostaldia

Orexa » Drogak izango dira hizpide iluntzeko saioan; datozen egunetan, bideo emanaldiak, ibilaldiak, bazkariak... izango dira.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko dute Orexan 23. Kultur Hamabostaldia. 1988an, Nikolas Ormaetxea *Orixeren* jaiotzaren mendeurrena gogora ekartzeko asmoarekin hasi ziren udazkeneko kultur jarduera ezberdinak antolatzen Uitzin (bertan hezi baitzen idazlea). Eta orduetik, urteroko hitzordu bilakatu dira ekitaldi hauek *Orixeren* jaioterrian.

Orexako kultura batzordea arduratzen da jarduerak programatzeaz. Gaur hasteko, herrian nerabe ugari daudela kontuan hartuta, *Drogak, gu eta gizartea* hitzaldia izango da Ganbaran. Jose Mari Izeta, Gipuzkoako Gizakia Helburu elkarteko (Proyecto Hombre) terapeutak emango ditu azalpenak, eta herritarren zalantzak argituko ditu.

Ostiralean, danbolinarenean bueltan elkartuko dira denak. Antolatzaleek osagaiak emango dituzte, eta denen artean taloak egingo dituzte, eta gaztainak erre. Ondoren, herriko bideo zaharren proiektzioa egingo dute. Jokin Sorozabal, Kultura Batzordeko kideak azaldukoaren arabera, «Orexako etxe baten erdi kasualitatez aurkeztu zituzten, duela 30 urte inguruko VHS formatuko zinta batzuk. Hala, hauek digitalera pasa ditugu eta ordubete inguruko ikuskizun bat prestatu». Festetako irudiak, Uitzikoekin egindako festa bat eta TVE-k egindako herri txikiaren inguruko saio bateko irudiak agertzen ziren zintetan. Honenbestez, herritar askok beraien buruak ikusi ahal izango dituzte. Orexakoak aurreratu zuenez, gainera, grabazio zahar gehiago aurkitzen dituzten heinean, argitara eramango dituzte.

Honekin, bide batez, erakutsi nahi dute, «egitarau aberats bat egiteko, askotan ez dela emanaldi ikusgarri bat egin behar, eta etxe



Larunbatean haurrei zuzendutako ekitaldiak izango dira. E. MAIZ

» KULTUR HAMABOSTALDIA

Urriak 27, gaur

■ **21:30.** Hitzaldia: *Drogak, gu eta gizartea*. Hizlaria Jose Mari Izeta izango da.

Urriak 29, etzi

■ **19:00.** Talo eta gaztain jatea.
■ **Ondoren.** Herriko bideo zaharren proiektzioa.

Urriak 30, larunbata

■ **16:00.** Eskalada saioa eta puzgarriak haurrentzat.
■ **Ondoren.** Merienda.
■ **22:30.** Antzerkia: Zirika Zirkusen *Pantxika Lamur*.

Urriak 31, igandea

■ **09:30.** XXIII. Uitzin-Orexa ibilaldia.
■ **14:00.** Herri bazkaria.
■ **Ondoren.** Kantu saioa Garazi Esnaola eta Garazi Egigurenekin.

ondoko gauzek interes handia piztu dezaketela».

Larunbata, haurrei zuzendutako eguna

Kultur Hamabostaldiko hirugarren egunean, ohi bezala, etxeko txikiak izango dira protagonista. Horregatik, puzgarriak eta eskalada saioa izango dira. Gauean be-

rriz, antzerkia izango da. Zirika Zirkusek *Pantxika Lamur* lana aurkeztuko du.

Igandean, Uitzitok Orexara oinez

Astea ongi amaitzeko, XXIII. Uitzin-Orexa ibilaldia egingo dute. Goizean, 09:00ak aldera elkartuko dira plazan, eta autobusez Uitzira joango dira. Gero, handik oinez itzuliko dira herri aldera. Kultur hamabostaldia hasieratik, Uitzin eta Orexa herrien arteko harremana sendotzeko bide izan da. Lotura hori, aipatu bezala, *Orixerengandik* dator. Horregatik, orexarrek ez ezik, hainbat uitziarrek ere egin dute ibilbidea. Antolatzaleen esanetan, hiru-lau ordutan egin daiteke txangoa, eta zailtasun ertainekoa da. Ibilaldi irekia da eta nahi duen orok hartu dezake parte. Eguna mahaiaren bueltan amaituko dute, herri bazkariarekin. Bazkalostea alaitzeaz, Garazi Esnaola eta Garazi Egiguren eskualdeko abeslari gazteak arduratuko dira.

Kultur Hamabostaldiari gaur emango diote hasiera eta azaroaren 5era arte luzatuko da. Honenbestez, datozen egunetan ere ez da aspertzeko betarik izango eta, hainbat jarduera izango dira. Horien artean, hitzaldiak, kantaldiak eta herri afaria izango dira.

Garaipen boladarekin amaituz, 6-4 galdu du Lauburuk

Ibarra » Basaurikoak izan zituzten aurkari larunbatean; partida hau galdu ostean, lidergoak ere alde egin die.

ERREDAKZIOA

Garaipen boladarekin amaituz, larunbatean, 6-4 galdu zuen Ibarako Lauburuk Basauriko taldearen aurka.

Ita amaierara arte, ibartarrek partida kontrolpean zutela baldin bazirudien ere, azken minutuetan gauzak erabat aldatu ziren. Arbitroaren lanak eragin handia izan zuen azken emaitzan. Partidako lehen minutuetan, Basaurikoak jarri ziren aurretik markagailuan, baina atsedenaldira iristerako, hau berdintzea lortu zuten. Bigarrenean, Lander eta Aitzolengolei esker, 2-4 aurreratu ziren eskualdekoak. Hortik aurrera, gauzak okertzen hasi ziren Lauburukoentzat, eta arbitroa, protagonismoa hartzen joan zen. Azkenean etxekoak izan ziren garaile.

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarretaratzea deitu du gaurko

ERREDAKZIOA

Aaiun-en Marokoko indar armatuek tirokatutako 14 urteko gazte sahararraren heriotza salatuz, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarretaratzea deitu du.

Protesta ekitaldia gaur 20:00etan izango da Triangulo plazan. «Maroko hiltzaile, Maroko errudun, Espainia arduradun» izango dira bertan entzun ahal izango diren oihuak. Honez gain, saharako herriaren autodeterminazioa eta independentzia aldarrikatuko dituzte.

Hamaika
ikusteko, bizitzeko

bat eta bat

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 21:00-etan
Eguneroko albistei, magazina,

SINTONIZATU EUSKALDUNOKIN: LTD BIDEZ (eskatu antenariari), ELISKALTEL BIDEZ (11 edo 911), www.hamaika.tv





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 118. ibarraldeia@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK** eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizarzeta, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak Hego!

Ondo ondo ospatu Aresoko lagunekin zure seigarren urtebetetze eguna. Elkar ikusiko dugu gero, bihotza. Muxu handi bat Berrobiko aiton-amonen partetik.



**Urte askoan!
Beñat (Ibarra).**

Gaur 2 urte. Zorionak amatxo eta aita txoren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Hilaren 19an Itziar-Zestoia mendia ibilaldia eta ondoren barrun jatea antolatuko du Alpino Uzturre mendia elkarrekin urtea amaitzeko. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, 943-65 27 89, alpinozture@hotmail.com).

Hitzaldia

■ **Oresa.** J.M. Izetaren *Drogak, gu eta gizartea* hitzaldia 21:30ean, Kultur Hamabostaldiaren baitan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galerian.
■ **Tolosa.** *Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz* izeneko erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.
■ **Ibarra.** Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da egun hauetan Benito Izagirre kultur etxean.
■ **Tolosa.** Ignacio Elizaranen era-

kusketa ikusgai Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Indonesiako Txotxongiloak erakusketa Topic Nazioarteko Txotxongilo Zentroan.
■ **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek eginitako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian (astearteetan itxita dago).

bertsioan ikusgai Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz aztoa, 9. 943-67 5118.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Udazkeneko Jokoen txapeldunak

TOLOSA • Iturriza helduen elkarteak Udazkeneko Jokoen 2010 antolatuko izen ematearen 33. lagunek parte hartu zuten eta Antonio Gonzalez eta Juan Bautista Aranzabe, Mate, zuzendaritza lanetan zirela, Udazkeneko Jokoen emaitza hauek utzi dituzte: Tutean, Serapio Agirre eta Juan Gonzalez

izan dira txapeldunak; Puntxoan, Maria Angeles Garaikoetxea eta Mila Ayestaran; Dominoan, Manuel Veiga eta Faustino Sandoval; Musean lau erregetara, Romualdo Calvo eta Juan Aristondo; Tovan, Angel Izagirre; eta Musean zortzi erregetara, Serapio Agirre eta Juan Gonzalez. HITZA

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!
902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)
www.tolosaldeko hitza.info
eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____

• Lanbidea: _____

• Helbidea: _____

• P.K.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____

• N.A.: _____

• Jaioteguna: _____

• Herria: _____

• Tel.: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beteki, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, eragilek dituen eskaritzan berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezertzatzeko eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahiz izanez gero, idatzi behide horietara TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-re Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza hitza@hitza.info